

ANTONIO ZAVALA, S. I. *Iru bertsolari*. Agustin Zakarra (1816-1886), Patxi Bakallo (1832-1898?), Pedro Santa Cruz (1838-1905). Auspoa Liburutegia, 66. 1967.

Azterketa bide nekegarriak urratu behar izan ditu egilleak berri ta bertsu guziok biltzeko. Mikela Elizegi (Pello Errota'ren alaba), J. A. Loinaz eta bertsularien ahidekoak izan ditu laguntzaille, baiña lan eta azterketa geienak egilleak bere gain hartu ditu.

Azken aldera zenbait doiñu dakarzki, A. Zatarain'ek magneto-fonutik paperera jasoak.

Joan zan mendeko hiru bertsulariren berri ta bertsu hunkigarri-dun liburu bikain bat dugu. Orain ehun urteko bertsularitza zer zen nahiko ondo erakusten digute salbatu ahal izan diran bertsu hauek.

Orduango giroa obeto ezagutzeko, interesgarria deritxogu, honekin batean, honen ondorean argitara duan *Alzo'ko Imaz bertsolaria* ere («Auspoa», 68-69-70). «Zeruko Argia»n egin nuen bere aipamena (242 zenbakian, urrillaren 22-koa, 9-gn. or.). Ta, «Auspoa»ren alde-rako, han jarritako hitzak hemen berriztu beharra dugu: Aita Zavalan lan ona egiten ari da. Askok esaten dute bertso geiegi argitaratzen dituela, obe zela hautatuenak bakarrik argitara ematea. Baiña, gerora bertsolari antologia on bat egingo bada, lehenengoz beharrezkoa da guziak bildu eta argitaratzea. Gero etorriko dira aburuak eta bereizketak. Gure herri literatura ezagutuko bada azkar bildu beharra dago, ta hau ondo daki Aita Zavalak.

Ezin dugunaren gurariz mintzatzea baiña egokiagoa zaigu dugunari laguntzea, ta alde honetatik «Auspoa»k merezi du laguntza. Hor jarri bai digu herri poesiaren almazena. Oraindik, bertsolaritzari buruz zer esan asko dago, ta hortik hartu beharko du sakonki aztertu nahi duenak.

J. SAN MARTIN.

